

txintxarri



Dantza, ospakizun iturri

Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira, emanaldiak egin dituzte diziplina artistiko hori lantzen duten zenbait eragilek / 8

TXINTXARRI

Aldarrikapenak eta jai giroa

Bizipoza Jaia ospatu dute eragile horren lan ildo, egitasmo eta helburuak lasarteoriatarrei erakusteko / 9

Udaberri Festan murgiltzear dira Iñigo de Loiola inguruko bizilagunak; eskaintza ederra prestatu dute / 2

Toponimiari buruzko 30 galderako lehiaketa bat aurrera eramango dute hilabeteen zehar / 3

Idoia Garzes Aldazabal idazle lasarteoriatarrek 'Dei galdu bat' liburua aurkeztu du / 6

Bi herriren kulturak batu dituzte Alboka eta San Salvatore abesbatzek, musikaren bidez / 7

Herriko atletak bikain lehiatu dira Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketetan / 10

Ostadar SKTko Erregional Gorengoak neurrak biribila egin eta Hondarribia garaitu du / 12

PROGRESIBOEN HILABETEA

2x189 €

MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 9/1720



MULTIÓPTICAS

943 37 74 55

Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com





ILBE Iñigo de Loiola Bizilagun Elkarteko kideak, auzotarrak eta udal ordezkariak ekimenaren aurkezpen agerraldian. TXINTXARRI

Udaberri Festak hartuko du Iñigo de Loiola ingurua

Egun osoko egitaraua iragarri du ILBE Iñigo de Loiola Bizilagun Elkartek hilaren 4rako. Udaberri Festa ospatuko dute, eta askotariko adin eta gustuei zuzendutako jarduerak aurrera eramango. Bertara gonbidatu dituzte lasarteoriarrak

Txintxarri

Udal ordezkariak ondoan, larunbatean, hilak 4, Iñigo de Loiola Bizilagun Elkartek aurrera eramango duen Udaberri Festara joateko deia egin die herritarrei.

Agerraldiari hasiera emateko, Festak saileko zinegotzi Txus Alonsok hartu du hitza, eta eskerrak eman dizkio aipatu bizilagun taldeari ekimena antolatzeagatik eta osatutako egitaraua aurrera eramateko egingandako ahaleginagatik. Jakinarazi du baita ere, 2024. urteko hitzarmenari esker, udalak 4.588,29 euroko diru laguntza emango diola ILBERi Udaberriko Festa aurrera eraman ahal izan dezan. Laguntza ekonomikoaz gain, baliabide teknikoak ere euren esku jarriko dituztela ere nabarmendu du.

Hitzartzea amaitzeko, ohartarazpen bat egin du; Iñigo de Loiola kaleko errepidearen zati bat itxita egongo dela, egitasmoan parte hartuko dutenen

segurtasuna bermatze aldera, festa hasi eta amaitu bitartean. Dena den, bizilagun elkarteko kideek jakinarazi dute, tarte horretan trafikoari dagokion edozein behar suertatuko balitz, eurak arduratuko direla hori bideratzeaz.

Udal ordezkaria eta gero, ILBEko lehendakari Idoia Arteagak hartu du hitza, eta egitarauaren errepaso egin du, jardueraz jardura. Giro ona, haurrentzako jolasak, erraldoi eta buruhandiak, pintxo-potea, paella jan herrikoia, bingoa, koktelak, musika eta operari asko izango direla nabarmendu du. Noski, gogoan izan ditu hori guztia aurrera eraman ahal izateko laguntza eman dieten babesleak: dendak, tabernak, enpresak eta Lasarte-Oriako Udala. Hala, ohartarazi du inork urdin koloreko auzoko festa zapia erosi nahiko balu, auzoko eta inguruko taberna eta saltokietan.

Egitaraua osorik

10:00etatik 11:30era: Diana. Trikitixa Ankoker auzoan zehar.

11:00etatik aurrera, Pintxo potea, izakinak amaitu arte.

11:00etatik 13:00etara: Haurrentzako jolasak, babesleen sariekkin.

11:30etik 14:00etara: Kilkerband txaranga kaleetan zehar.

12:00etan: Bizkotxo lehiaketa; jakien entregatzea. Sari banaketa 13:00etan.

14:30ean: Paella jana. Txartelak agortuta daude.

16:30ean: Bingoa eta koktel barra.

18:00etan: Dantzak.

19:00etatik aurrera: DJ Karpin, festa amaitu arte.



TXINTXARRI

Pedro Sanchezzi babesa

Lasarte-Oriako PSE-EEk deituta, 35 bat lagunek parte hartu zuten Pedro Sanchez Espainiako gobernuko presidenteari babesa adierazteko elkarretaratzean. Herriko Etxearen aurrean bildu ziren, apirilaren 27an, 11:00etan *No todo vale* zioen paperak eskuan, eta "merez du" oihukatu dute, gaztelaniaz.



Artxiboko irudi honetan Udal Musika Eskolako gitarra jotzaileak ageri dira. TXINTXARRI

Aurrematrikula martxan du Udal Musika Eskolak

Hori egiteko azken eguna hilaren 10a izango dela ohartarazi du eskolak. Eskaintza zabala prestatu du

Txintxarri

Ostegun honetan, hilaren 2an ireki du aurrematrikulatzeko epea Udal Musika Eskolak. Hori egiteko interesa duten herritarrek Manuel Lekuona Kultur Etxeko bigarren solairura joan beharko dute 09:00etatik 14:00etara edota 17:30etik 19:00etara (hilaren 7an eta 9an soilik). Eguna eta ordu horietan egoitzara joaterik ez dutenek, berriz, musikaeskola@lasarte-oria.eus helbide elektronikora mezu bat idatz dezaketela ere ohartarazi dute arduradunek. "Gustura

erantzun zaitugu lasarteoriarren zalantza guztiak", adierazi dute eskolakoek.

Eskaintza zabala prestatu dute Udal Musika Eskolan jardun nahi dutenentzat: 4 eta 7 urteko umeentzako musika tailerrak, pianoa, gitarra klasikoa edota elektrikoa, tronpetak, trikitixa, akordeoia eta beste instrumentu ugari jotzen ikasteko aukera aukera izango dute interesdunek. Aurrematrikula egiteko azken eguna hilaren 10a izango da, ostirala.

Galdetu eta erantzun, Lasarte-Oriaz ikasteko

Toponimia edo toki izenak dira gure herriaren ondare preziatuenetako bat. Horren garrantzia ikusarazte aldera elkarrekin ari dira lanean Lasarte-Oriako Udaleko Euskara saila eta TXINTXARRI aldizkaria. Galdera lehiaketa bat egingo dute hiru astetan zehar

Txintxarri

Toponimiari buruz galdetu eta erantzun, Lasarte-Oriaz eta bertako toki izenez ikasteko. Hori da Lasarte-Oriako Udaleko Euskara sailak eta TXINTXARRI-k hilabete honetan erabiliko duten dinamika, hiru astetan zehar www.txintxarri.eus atari digitalean aurrera eramango duten lehiaketaren bidez: hilaren 6tik 12ra, 13tik 19ra eta 20tik 26ra hamarna galdera erantzun beharko dituzte jokalariek. Parte hartzeko baldintzak alboko koadro arrosean jaso ditugu.

Galdera guztiak (gogoratu 30 direla guztira, astero hamar) asmatzen dituztenen artean nekazal etxe batean gau eta gosari bana zozkatuko ditugu, bi pertsonarentzat. Inork ez balitu denak ongi erantzungo, gehienak zuzen egin dituztenetako batek irabaziko du. Parte hartzeak berak ere izango du saria, izan ere, lehiaketak egitera animatzen diren guztietako batek Avenida taberna-jatetxeko bi menu berezi (asteburukoak) poltsikoratuko ditu. Hilaren 28an iragarriko dugu saridunak nortzuk diren.

Informazio gehiago topatuko duzue TXINTXARRI aldizkariaren webgunearen *Toponimia* kanal berezian.



Herritarrek galdera lehiaketan parte hartzera animatu dituzte antolatzaileek. TXINTXARRI

Parte hartzeko jarraibideak

Lasarte-Oriako toponimiari buruzko hiru lehiaketa aurrera eramango ditugu hilabete zehar. Hamar galdera izango ditu bakoitzak.

- **Ez dago denbora mugarik.** Ez izan presarik galderak erantzuteko. Jokatzan hasten zaretenean nahi adina denbora har dezakezue, hori bai, zabalduko leihoa ez itxi!
- **Erantzunak, webgunean.** Lehiaketako 30 galderen erantzunak [toponimia.lasarte-oria.eus](http://www.toponimia.lasarte-oria.eus) atari digitalean topatuko dituzue. Beraz, sartu webgune horretara eta saltseatu. Ez zaizue damutuko.
- **Gutxienez 18 urte eta partida bakarra pertsona bakoitzeko.** Lehiaketetan parte hartzeko gutxienezko adina 18 urtekoa da eta partaide bakoitzak behin bakarrik jokatu ahalko du, ez gehiagotan.



NEURE KABUZ
AIZPEA AMAS

Burpeesak

Millenial edo Z belaunaldiko sare sozialak erabiltzen dituen edonork, oso satelitea izan gabe, badaki zer dagoen hitz horren atzean: marfila baino horts zuriagoak dituen 30 urte inguruko kruasan bat, tatuaiez beteta, txuriari lixiba botatzerakoan geratzen den hori kolore konkretu horretako ilea daramana, ustez milioika billetez eta luxuzko kotxez inguratuta dagoena, eta batez ere pozoindutako mezuak helarazten dituena.

Boteprontoan diskurtso positiboa eduki lezake, motibagarria, garapen pertsonala sustatzen duena ('altxa ohetik goizean goiz burpeesak egiteko'), baina hurbiltzearekin batera, ustel usaina botatzen hasten da... diru-gosea, indibidualtasuna, norberaz beste inor kontuan ez hartzea... Era berean, hainbat eta hainbat mutil hasi dira beren salbatzailearen sermoiak zabaltzen, noizbait milioidun izateko xedez.

Hau adibide bat baino ez da, baina sarean horrelako beste hainbeste aurki daitezke. Egun hauetan Pedro Sanchezen aferak lehen lerrora ekarri du gezurrezko mezu eta desinformazioaren gaia. Beno, ezin esan euskal gizarteak horren ondorioak ezagutzen ez dituenik, beraz, berriro ekarri duela esango dugu.

Arlo politikotik harago, eta pandemia osteko gizarte are eta teknologizatuagoak bultzatuta, gero eta toki handiagoa dute horrelako mezuek gazteen eta ez hain gazteengan, bozgorailu bat izango balute bezala, eta horren adibide dira muturreko eskuinaren gorakada, terraplanistak, antifeministak...

Tamalez, mila gezur egi bihur daitezkeela frogatzen ari da, eta inolako kode etikorik gabe, askatasunaren bandera ateratzen dute horiek kontrolatzeko beharra aipatzerakoan. Kritikotasun, irizpide eta balore falta handia sumatzen da horren aurrean, eta, behintzat, arreta jartzen hastea ezinbestekoa da, berandu izan baino lehen. Baloreak landu, babalreak saihesteko.

Udaltopen izena emateko epea luzatu dute hilaren 6ra arte

Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen XVI. Topaketan izena emateko epea hilaren 6ra arte (astelehena) luzatu dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Momentuz 150 lagun inskribatu direla jakinarazi dute; jardunaldiak Lasarte-Oriaz bertan

jarraitzeko asmoa dute parte hartzaile gehienek.

Hilaren 16an eta 17an aurrera eramango dute XVI. Udaltop, Manuel Lekuona Kultur Etxean. *Nola erakarri etorri berriak euskarara? Eta, euskaldunok, nola hurbildu etorri berrietara?* izenburupean, oinarri teorikoak, ikerketak eta praktika onak bilduko dituzte, etorri berrien harreran fokua jarrita.

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66



Hitzaldira joandako ikus-entzuleek adi-adi entzun zituzten David Pena eta Asier Herranz hitzak. TXINTXARRI

Palestinan bizi dutenaz mintzatu da, Xirimirin

Palestinako egoerari buruz hitz egin du Samidoun Euskadi elkarteko kide Asier Herranzek. Solaskide izan behar zuen Remm Damdan aipatu elkarte horretako kidea ere, baina ez du bertaraterik izan. Xirimiri elkartean aurrera eramanez dute ekintza

Txintxarri

Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamikak deituta, hamaika deialdi aurrera eramanez dituzte, herrian Palestinaren alde. Berriki izan da azkena; Samidoun Euskadi elkarteko kide Asier Herranzek hitzaldia entzun dute herritarrek.

Protagonistari hitza eman aurretik, herri dinamikako kide batek hartu du hitza, eta, esan, Palestinaren alde antolatzen ari diren ekintza guztiak aurrera eramanez ari direla, bertan gertatzen ari den genozidioa ahanzturan eror ez dadin ahalegintzeko.

Hori esanda, Herranzek aurkezpen labur bat egin du. Kontatu du "antisionista, antiimperialista eta analista politikoa" dela, eta, gaineratu, Sirian eta Libanon egona dela. Gauzak horrela, azpimarratu du "badakie-la hitz egiten duenaz", eta erresistentzia eta terrorismoaren arteko aldeaz hitz egitera etorri dela ere aipatu du.

Aurkezpenaren ostean hartu du hitza Herranzek, eta Samidoun Euskadiren aurkezpen labur bat egin du. Kontatu du urriaren 7az geroztik sortu dutela elkarte, Palestinan gertatzen ari den genozidioaren sorrerari "bide politikoa emateko". Hori hala izanik, azaldu du Euskal Herri osoan zehar ari direla jendea kontzientziatu eta horiek gaiarekiko izan dezaketen lerratze jakin batzuekin amaitzeko. Jakinarazi du baita ere, palestinar preso politikoaren nazioarteko sarea dela eta elkarteak Europa osoan, Asian eta Hego eta Ipar Amerikan duela ordezkaritza. Gaineratu du *Samidoun* hitzak konstantzia esan nahi duela, arabieraz.

PALESTINAN GERTATZEN ARI DENAREN BERRI EMAN DU ASIER HERRANZEK

Elkartearen gaineko informazioa eman eta gero, eta gai sakonago mintzatzeko, aipatu du gustuko duela bere hitzaldiak argumentario sionistak erabiltzen dituen mitoei buruz hitz eginaz hastea; horretarako zenbait zertzelada historiko mahaigaineratu ditu; besteak beste, hauek: Erromatar konkistaren "exodoaren" gezurra; Gurutzadak; 1492. urtean emandako Sefardien egozteaz; 1881. urtean emandako lehen Aliyahatik, 1934. urteko seigarrenakoa.

Gaiarekiko oso zabalduak dauden premisa oker batzuen adibideak ere ekarri ditu ikus-entzuleen artera, eta, esan, horiekin hautsi egin behar dela. Adierazi du, adibidez, heriotzaren aurkako jarrera *naivea* bazter utzi behar dela, eta gertatzen ari denaren errua erlijioak duela pentsatzea ere okerra dela. Horrekin batera, "hau Hamasek hasi du" edota "bi aldetako fanatismo erlijiosoa" bezalako usteak ere bazter utzi behar direla.



Ohi bezala, Elizatze plazatik abiatu ziren manifestariak. TXINTXARRI

"Elkarbizitza, konponbidea eta bakea" lortzeko, urrats gehiago

Martxoko etenaldiaren ondoren Azken Ostirala itzuli da herriko kaleetara. Manifestu bat irakurri dute Okendon

Txintxarri

Mobilizazioari Elizatze plazatik ekin ziotenean ateri bazegoen ere, Okendora bidean hasitako euriak udaletxe arkupean aterpe hartzera behartu zituen partaideak. Horren eta mikroarekin izandako arazoaren eraginez, Pili Kastresanaren inguruan jarri ziren partaideak mezua entzuteko.

Apirilaren 28an urtebete osatu zen Donostiako Artzain Onaren atarian "etapa berri baten aurrean dauden oztipoen irakurketa" plazaratu zutela. "Urruntze politika" gainditzeak presoaren eskubideen urraketaekin ez amaitzeaz gain, politika horren "arazo eta oztipoak" agerian utzi zituzten. "Berezko botere politiko bilakatuta", Fiskaltzak eta Justiziak EAEko agintari eskudunen espespetxe politika "ezbaian jarri" eta espespetxe-tako tratamendu batzordeek hartzen dituzten erabakien kontra, gradu progresioen eta espespetxe

baimenen aurka egiten dute. Horren adibide, Joseba Borde eta Juan Karlos Subijananen aurkako helegiteak.

Hortaz, "togak mendekurako tresna bihurtu" dituztenak salatu eta haien aurrean urratsak ematen jarraitzeko eskatu diote Eusko Jaurlaritzari, espespetxe politika arrunta aplikatze bidean aurrera pausoak ematen jarraituz, eta espespetxe-tako juntei beren irizpide profesionalak aplikatzen jarrai dezatela, "Fiskaltzaren eta espespetxe zaintzako epailearen jarreraren aurrean".

"Elkarbizitza, konponbidea eta bakea" lortzeko "salbuespeneko jokaeren amaiera" ezinbestekoa dela errepikatu dute, "giltzak gure eskuetan" daudela gogoratu. "Euskal gizartearen gehien-goaren babesarekin atzerazinezko bide batean jarri gaituzten etapak gainditu ditugu, elkarbizitza eta konponbidearen alde".

Poltsiko Antzerki Jaialdian ari da Bea Egizabal

Urtero aurrera eramanez dute formatu txiki eta ertaineko antzezlanen erakustaldia Donostiako auzoko taberna eta lokaletan. Aurtengoan parte hartzen ari da Bea Egizabal, honezkerok makina bat tokitan erakutsi duen *Magma mia* ikuskizunarekin.

Poltsiko Antzerki Jaialdiko lehen emanaldia atzo bertan

egin zuen, hilak 2, Next Tabernan, gaztelaniaz. Datorren aste-ostegunean (hilak 9) aurrera eramango du bigarren eman-kizuna, Kafe Botanikan (Gernikako Arbola pasealekua, 8), 18:00etan hasita, euskaraz. Sarrrerak doakoak izango dira aipatu areto hori bete arte.

Egitasmoaren helburua da gune eszeniko ohikoetara joaten ez diren ikus-entzuleak antzerkikira hurbiltzea. Poltsiko Antzerki Jaialdia 1991. urtean egin zuten aurrenekoz.



Miel A. Elustondo (eskuean, zutik) gonbidatu zuen Okendo Zinema Taldeak apirilaren 27ko emanaldira. TXINTXARRI

Bi errealitate oso ezberdin ezagutu dituzte

Euskal Dokumentalen Zikloa itxi du Okendo Zinema Taldeak, 'Cabeza y corazón' eta 'Mirande' ikus-entzunezkoak proiektatuta. Emanaldi batean zein bestean lanetan parte hartu duten ordezkariak hitz egiteko aukera izan dute kultur etxera joan direnek

Txintxarri

Bi errealitate oso bestelako eza-gutzeko aukera izan zuten lasarteoriatarrek Okendo Zinema Taldearen proposamenen bidez. Apirilaren 26an, *Cabeza y corazón* dokumentala, desgaitasuna duten emakumezko kirolariena; hurrengo egunean, berriz, Jon Mirande idazle zuberotarrari buruzkoa.

Ainhoa Andraga eta Zuri Gokoetxea *Cabeza y corazón* dokumentalaren zuzendariak hitz egin zuten kultur etxera joandako ikus-entzuleekin. Espainiako emakumezkoen gorpil aulkiko saskibalo taldeko kideei buruzko lanean, azaldu zuten, elbarritasunaz harago joan nahi izan zuten. "Gaitasunari buruzko lana da". Andrakak 2017 inguruan grabatutako material eta oharretatik abiatuta, berak grabatu zituen bi jokalariek non zeuden bilatu zuten eta Espainiako taldeak Munduko Txapelketan parte hartuko zuela jakin zuten. Jokalariek ezagutu zituzten eta haien historien berri izaten joan ziren neurrian, ideia moldatu eta taldean oinarritzea erabaki zuten. Amaiera, gazi-goza da, baina zuzendarien esanetan, "bizitza ere hala

da: ñabardurak ditu; ezer ez da %100 osoa".

Amaiera zoriontsurik gabeko beste lan bat da Josu Martinezen *Mirande*. Film baterako zirriborro gisa definitua, bertaratu zirenekin hitz egin zuen Miel A. Elustondok: "Pelikula bakarra baino gehiagotarako eman lezake". Zuzendariak 14-15 urterekin *Gauaz parke batean* irakurri zuen eta ordutik beti nahi izan zuen filma egin. Uda batean Elustondok hildakoei egindako bospasei elkarrizketa egin zituen, haietako bat Mirande. "Obsesio bat bihurtu da. Niretzako inoizko gauzarik ederrena delako. Horrek bezala idazten duenik gutxi, oso gutxi, euskaraz. Hain dotore. Oso gutxi. Eta euskaldunberria zen". Urtarrilan *Berrian Mirande hil zaigu* idatzi zuen hainbat lan muntatuta, eta otsailean, Joseba Sarrionandiaren bidez, berarekin harremanetan jarri zen Martinez. Ordurako Elustondok urteak zeramatzen Mirande eta bere lagun lanak irakurtzen eta gidoian parte hartu zuen. "Dena nuen buruan: epaiketa gutxiago eta utzi pertsonari hitz egiten. Hori zen nire obsesioetako bat".

Federiko Krutwig eta bere ondarea ezagutarazten

Euskal intelektual, idazle eta politikari horren bueltako saioa aurrera eraman du Krutwigen Lagunak taldeak, Antonio Mercero aretoan. Dokumental proiektio eta hitzaldi bana aurrera eraman ostean, bertaratutako iritzi eta ekarpenak jaso dituzte

Txintxarri

Federiko Krutwig (Getxo, 1921-Bilbo, 1998) euskal intelektual, idazle eta politikariaren bizitzaren bueltan jardun berri da Krutwigen Lagunak taldea, Antonio Mercero aretoan; bertako kide Oskar Arantzabal eta Balaren Bakaikoak dinamizatu dute saioa. Jaio zenetik ehun urte bete zirela nabarmentzeko, Nabarralde fundazioak *Krutwig. Bere mendeurrenean berrirakurtzen* liburua argitaratu zuen joan den urtean, aipatu pertsona horren bizitza eta ondarea ezagutarazteko. "45 urte baino gutxiago dituzten oso-oso gutxi ezagutzen dute, eta helduagoek,



Ezker-eskuin, Arantzabal eta Bakaikoak, saioa aurkezten. TXINTXARRI

ez askoz gehiago", aipatu zuen Arantzabalek.

Lehenik eta behin, *Getxoko izen handiak* dokumentala proiektatu zuten. Hogei bat minutuko ikus-entzunezko horretan Krutwigen bizitzaren eta lanaren zertzelada ugari jaso zituzten ikus-entzuleek. Ama getxoiztarra eta aita alemaniarra, Bizkaiko hiri horretan jaio zen 1921ean eta Bilbora joan zen bizitzera handik gutxira. Hizlariak nabarmendu dute "ikasle ona eta kultura handiko pertsona" zela eta erraztasuna zuela hizkuntzak ikasteko, baita euskara ere. "Familia burges batekoa zen Krutwig eta gidari batek lan egiten zuen haientzat; bizkaitarra eta abertzalea zen eta berari esker hurbildu zen euskarara". Hizkuntza hori azkar ikasi eta Euskaltzaindiako orduko lehendakaria zen Resurreccion Maria Azkueren lagun egin ostean, 1942an euskaltzain urgazle izendatu zuten. Bost urte geroago, aldiz, euskaltzain oso.

Ikus-entzunezko horretan "euskal polimata" gisa aurkezten dute Krutwig, hau da, ezagutza arlo ugarian jardun zen pertso-

na jakintsu baten gisan. Ez alferrik, izan ere, euskalgintzaz gain, beste alor asko jorratu zituen: kultura, nazionalismoa, artea, literatura... Jakinduria zabala izateaz gain, nortasun handikoa izan zen. Horren adibide izan ziren 50. hamarkada hasieran Euskal Herriko eliza katolikoari egindako kritikak, estamentu horrek euskararekiko zuen jarrera epelagatik. Horrek eta errepresio frankistak arazo ugari ekarri zizkion, erbestera joan behar izateraino.

Krutwig aurrez aurre ezagutzeko aukera izan zuen Bakaikoak 60. hamarkadaren amaieran eta horri buruz aritu da gero. "Erromara joan nintzen lagun batekin eta hilabete eta erdi pasa genuen berarekin", gogoratu du. "Hamasei hizkuntza zekizkien garai horretan baina esaten zuen penatuta zegoela, pertsaharra hitz egiteko inor topatzen ez zuenez ahazten ari zitzaizolako". Gisa horretako anekdota gehiago partekatu zituen bertaratutakoekin, eta, amaitzeko, euren iritzi eta ekarpenak bildu zituzten antolatzaileek.



Garzes (ezkerrean), argitaratu berri duen liburuari buruzko xehetasunak ematen. TXINTXARRI

Bidaia liburu bat idazteko egin duen bidaiaz

'Dei galdu bat' eleberria argitaratu berri du Idoia Garzes Aldazabal idazle lasarteoriatarak. 16 urteko bi neraberen istorioak kontatzen ditu, Aminata senegaldarrarena eta Itsaso euskaldunarena. Udal Liburutegiak antolatu du ekitaldia; 50 bat pertsona bertaratu dira

Txintxarri

"Bidaia bat da, abentura liburu bat. Esperantzarako bidea ematen duela uste dut eta irribarre batekin bukatuko dutela *Dei galdu bat* irakurtzeaz". *Spoiler*-ik egin gabe, argitaratu berri duen nerabeentzako eleberriri buruzko xehetasun ugari eman ditu Garzesek, alboan zuten Labandibarren galderak

erantzunda. Migrazioa bezalako gai gogor batean ardaztutako kontakizuna izanagatik, egileari ez zaio iruditzen narrazioaren tonua halakoa denik. Edonola ere, irakurle bakoitzak bere erara interpretatuko du, idazkia hartu eta irakurtzen duenean. "Ez dut pedagogiarik egin nahi inorekin, nire ideiak azaltzeko idazten dut eta kritikoa naiz

gauza askorekin", adierazi du kultur etxeko hitzaldi aretora bertaratu diren 50 bat pertsonen aurrean. Udal Liburutegiak antolatu du saioa, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira.

Dei galdu bat liburu hartu eta irekitzen dutenek Aminata eta Itsaso ezagutuko dituzte, 16 urteko bi nerabe, Senegalekoa lehenengoa eta Euskal Herrikoa

bigarrena. Amarekin oporretan dago azken hori, Andaluzian, eta hondartza bateko itsasertzean botila bat aurkituko du. Ontzi horren barruan dago Aminataren sakelako telefonoa; afrikar gazteak bere jaioterritik Europara egin duen bidaia kontatzen du eta gailua aurkitzen duenari erregutu mugikorra bere gurasoei emateko. Fikziozko istorio bat izanagatik, gaurkotasuna duten gai ugari jorratzen ditu Garzesek, besteak beste, migrazioarena.

Migratzailea eta emakumea

Esan bezala, Aminata (Ami) da protagonistetako bat: migratzailea eta emakumea da. "Egia esan, erreparo pixka bat ematen dit ezaugarri horiek dituen norbaiten azalean jartzeak ez dakidalako zenbateraino egin dezake dan hori, baina uste dut literaturak ematen duela horretarako lizentzia, zentzu onean". Immigrante horien bizipenak aldarrikatu ditu bere kontakizunean, gizonak ikusten ditugulako gehienetan. "Gizonek gaizki pasatzen badute, emakumeek are okerrago. Ami, adibidez, gizonez jantziko da bere bidaia egiteko; hori egingo du ikusten duelako zer gertatzen ari den bere inguruan; ez da inozoa".

Izenburuari erreferentzia egin da, istorioan zehar protagonistek galtzen dutenari buruz galdetu dio Labandibarrek. "Inozentzia izan daiteke, nerabezartotik helduarora pasatzeko bidaia, bizi-tza bera dena. Familia, lagunak... galdu baina irabazi ere bai. Txuri-beltz, positibo-negatibo, galdu-irabazi, gogorra-samurra bezalako dikotomia asko daude, kontraste horiekin jokatu dut".

Buruan duena paperera eraman aurretik Garzesek "sekula"

ez ditu izaten kontakizunak oso eskematizatuta. "Beti dakizkit hasiera eta bukaera, eta, tartean... ba zerbait asmatu behar dut. Pixkanaka idazten dut, intuitibo naiz". *Dei galdu bat* en kasuan Aminataren bidaia-aren bizkarrezurra bazuen. "Kronika moduko istorio bat da, beste batzuetan zirrikitu gehiago irekitzen ditut, asko gustatzen zait elipsia eta denboran aurrera eta atzera egitea; irakurlea nahastea. Liburu honetan, edonola ere, baliabide horiek ez ditut erabili, bidaia baten kontakizuna da".

Inguruko irakurle batzuen-gandik jaso ditu honezkero iritziak. "Nire lagunek zer esango dute ba", bota du, umorez. "Gustura geratu naiz, dirulaguntza eman zidan Eusko Jaurlaritza eta editoreak ere bai, beraz, pozik nago". Horri lotuta, adierazi du idazketa prozesuan gehiago gozatu duela sufritu baino, nahiz eta uela batzuetan "iruzurgilearen sindromea" pairatu: "Esan izan dizkiot nire buruari 'ez dakit idazten', hau kaka zahar bat da' eta horrelakoak, baina jakiten dut noiz ari naizen ongi, noiz den liburu bat argitaratzeko modukoa. Hala sentitu izan ez banu, bekaren dirua gordezkeko esango nien, ez nuela ezer kaleratuko".

Elkar argitaletxearekin kalera-tu du Garzesek *Dei galdu bat*. Bitxikeria gisa, idazleak etxe horretako bertako biltegian lan egin du.

"NIRE IDEIAK AZALTZEKO IDAZTEN DUT ETA KRITIKOA NAIZ GAUZA ASKOREKIN"

'La isla de los demonios' lana argitaratu du Txema Pikabeak

Sentimenduekin, intrigarekin, ezustekoekin eta beste osagai interesgarri batzuk bildu ditu herritarrak liburuan

Txintxarri

"Nerabe gatazkatsuen edota bizi-tza zaila dutenen mundua izugarri gustatzen zait eta zerbait idatzi nahi nuen beraiei buruz", azaldu du Txema Pikabea herritarrak. Hori izan da

argitaratu berri duen *La isla de los demonios* liburuaren abiapuntua. Lana, hala ere, "hori baino askoz gehiago" dela ohar-tarazi du: "Maitasuna, gorrotoa, inbidia, laguntasuna, intriga, ezusteko bira eta kolpeak, fa-

milia dramak... topatuko dituzte irakurleek". Orain gutxi publikatu duen eleberria aurrekoak baino "landuagoa eta aldrebesagoa" dela zehaztu du egileak, eta, ezaugarri horiek "arriskua" izan dezaketen arren, kontakizunari "beste puntu bat" ematen diotela.

Protagonista nagusia Ager da. Beste nerabe batzuekin batera esperimentu baten parte izan zen irla batean, 2004an. Orduan bizi-takoa eta utzi dizkion aztarnak dira ardatzak. "Hamasei urte



Pikabea, liburuarekin. T. PIKABEA

geroago [istorioak jauziak egiten ditu 2004 eta 2020 artean] jende ugari gurutzatzen da Agerren norabidean eta kolokan uzten dute bere bidea. Aurrera egiteko modu bakarra uharte horretan gertatu zena argitzea izango da". Pertsonaia "dezente" daudela aurreratu du idazleak. "Hasieratik ikusten da batzuek eta besteek nolabaiteko lotura dutela".

Aipatu liburuaren ekainaren 3an (astelehena) aurkeztuko du Pikabeak, Altzako (Donostia) Tomasene kultur etxean, 18:30ean.

Lasarte-Oria eta Susegana elkartu ditu musikak

Elkartruke egitasmoa aurrera eraman dute egunotan Alboka eta San Salvatore abesbatzek, gure udalerriko eta Italiako Veneto eskualdeko kulturak uztartuta. Besteak beste, bisitariak kontzertu bat eman dute Ama Brigitarren komentuan

Txintxarri

Alboka nahiz San Salvatore abesbatzetako kideek ez dute berehalakoan ahaztuko apirilko azken asteburuan bizitako gutzia. Elkartruke egitasmo bat aurrera eramaten ari dira bi taldeak eta herritarrek 2019an egindako bisita itzuli dute, hasieran aurreikusi baino urte batzuk geroago (2020an etortzeko asmoa zuten baina bertan behera utzi behar izan zuten bidaia, koronabirusak eragindako pandemiagatik). Itxaronaldiak merezi izan du eta bateko zein besteko lagunak gustura aritu dira Lasarte-Oria eta inguruak ezagutzen, elkarrekin bazkaldu eta afaltzen, eta, nola ez, batera abesten.

Apirilaren 27an lepo bete zen Ama Brigitarren komentua, San Salvatoreren kontzertua ikusteko. Beltzez jantzita eta apaingarri horiekin aldare aurrean kokatuta abestu zuen koruak. Gizon eta emakumez

osatua, hamahiru abestiko errepertorioa eskaini zuten: *Benedetto sia lo giorno* (Giovanni Animuccia); *Sub tuum praesidium* (Marco Frisin); *Ubi caritas* (Ola Gjeilo); *In monte oliveti* (Giorgio Susana); *Tenebrae factae sunt* (Marc'Antonio Ingegneri); *O filii et filiae* (Ivo Antognini); *Regina coeli* (Giovanni Giacomo Gastoldi); *Esta tierra* (Javier Busto); *Deep river* (Jean Pagot); *Vieni sul mar* (Stefano Da Ros); *Laila oh!* (Bepi De Marzi); *Resterà la luce* (Giorgio Susana); eta *San Salvatore* (Italo Bianchi).

Ondoren, Albokako kideek arrosak oparitu zizkioten eta Montse Latorrek txapela jarri zion Corale San Salvatoreko zuzendari Stefano Granzotto-ri, txalo artean. Eskerrak eman zizkien, "hizki larriz", Granzotto Albokako lagunei "hitz gutxiokoak" izan arren, egindako harrera eta harremanagatik. Amaitzeko, bi abesti kantatu

zituzten elkarrekin eta talde argazkia egin zuten.

Harrera ekitaldia

Italiarrak apirilaren 25ean iritsi ziren gurera eta harrera ekitaldi instituzional batean jaso zuten ongiatorri beroa. Ekitaldi formala izaki ez ziren falta izan partaideen arteko eskertza hitzak eta opariak, baina, protagonista nagusiak San Salvatore eta Alboka abesbatzak izan zirenez, musikak ere izan zuen tokia: pleno aretora igo aurretik udaletxeko arkupeetan *Baratze bat* (Pier Paul Berzaitz, Xabier Sarasolak moldatua) abestu zuen gure herriko taldeak.

Agustin Valdivia alkateak hartu zuen hitza ondoren eta italiaraz hasi zuen bere diskurtsoa, parean zituen San Salvatoreko 30 bat kideei ongiatorria egiteko. Adierazi zuen koru italiarraren jardunak "antza" duela Albokak hemen egiten



San Salvatore abesbatzak kontzertua eman zuen Ama Brigitarren komentuan. TXINTXARRI



Apirilaren 25ean iritsi ziren italiarrak gure herrira. ISAAC FARRE

duenarekin: "Susegana herriko bizitzaren eta arimaren parte zarete, ekitaldi askotan aritzen baitzarete".

San Salvatore abesbatzako lehendakari Laura Battistellak, berriz, eskerrak eman zizkion

udalari ongiatorriagatik eta gogoratu lehen elkartrukea 1995ekoa izan zela. "Pozik gaude musikak itxuraz oso desberdinak izan daitezkeen bi kultura batu dituelako, Suseganakoa eta Lasarte-Oriakoa".

Garagardo artisauez

40 bat herritarrek parte hartu dute Extremadura Etxeak antolatutako garagardo dastaketan eta gau berezia igaro egoitzan. Beerbao enpresako Alberto Calvok bost garagardo aurkeztu eta bakoitzaren ezaugarrien berri eman die. Zaporeari lotutakoz gain, dastaketarako aukeratutako pintxoarekin zergatik uztartu duten ere azaldu die.





Erketz EDTko dantzariak zapi dantza koloretsua aurrera eraman zuten. TXINTXARRI

Tradizioaren oinordekoak

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu dute Kukuka, Erketz EDT, Amaia Gonzalez Caballero akademia eta Semblante Andaluz eragileek, Okendo plazan. Emanaldiei ekin aurretik Marianela Nuñez dantzari argentinarraren manifestua irakurri dute

Iñigo Gonzalez Sarobe

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten apirilaren 29an Kukuka, Erketz EDT, Amaia Gonzalez Caballero akademia eta Semblante Andaluz eragileek, azken urteetan egin izan duten moduan: elkarte bakoitzeko dantzari taldeek emanaldiak egin zituzten Okendo plazan. Lehen ilaretan jarritako eserlekuak hasi baino ordu erdi lehenago hartuta zeuden eta geroago iritsi zirenek beste zenbait lerro osatu zituzten atzean, enparantza lepo betetzeraino.

Ikuskizunari ekin aurretik aipatu eragile horietako bakoitzeko ordezkari pare bat atera ziren plaza erdigunera, Marianela Nuñez dantzari argentinarrak aurtengo ospakizunerako prestatutako manifestua irakurtzeko. Euskaraz nahiz gaztelaniaz

egin dute hori, txandaka. Hone-l a dio adierazpenak:

"Oroitzapen batek ez du historia egiteko balio. Eta antzerki baten historia, bakoitzarena bezalakoa, besteen historia ere bada, dantza bezalako arte batek latitude ezberdinetan migratu eta hazi zuen moduarena. Royal Balleteko hormek bidaiaren argazkiak gordetzen dituzte, historiak protagonistak erreklamatzeko ditu eta Argentinako dantzak izen horietako bakoitzarekin distiratsen du.

Sarritan, erakundeak anonimotasun isilean murgiltzen dira, aurpegiarik eta abizenik gabe, iraganaren oihartzunari aurre egitea saihestuz. ITI-UNESCOk bultzatu eta babestutako erakundeak dira, Argentinako Dantzaren Kontseilua bezala, ahanztura zehazten duen harresi lana egiten dutenak.

Dantzaren mundua aberastu duten eta datozen belaunaldiek entzutea merezi duten maisu, artista eta koreografoen historia berreskuratze eta biziberritze konpromisoan nago zuekin batera. Denok jakin dezagun ez garela ikusleak, artez, duintasunez eta sakrifizioz eratutako tradizio baten oinordekoak baizik, gure bidea edertasunarekiko bokazioz eta maitasunez elikatuz. Etorkizunak eta orainak gure arreta bereganatzen badute ere, iraganaren oinarri sendorik gabe, gure lurraren emankortasunik gabe, dantzaren zuhaitza ezin da loratu. Sustriaiak tradizioa dira eta, aldi berean, mantenuaia".

Makina bat taldek lagundu zuten dantzaren zuhaitza Okendon loratzen, emanaldi ederrak eginda. Elkar agurtu aurretik talde argazkia atera zuten elkarrekin, historiarako.



Kukukako helduen taldeetako bat, emanaldiari ekiten. TXINTXARRI



Semblante Andaluzeko hirukote gazteak trebezia handia erakutsi zuten. TXINTXARRI



Akrobaziaren bat edo beste egin zuten dantzariak. TXINTXARRI



Elkar agurtu aurretik talde argazkia atera zuten partaideek. TXINTXARRI



Bizipozaren oihal koloretsua lau haizetara astindu zuten. TXINTXARRI

Bizipoza hedatu dute herrian

Bizipoza Eskolaren 'Zipriztindu zure ingurua' leloari helduta, aldarrikapenek eta jai giroak blaitu dituzte lasarteoriatarrek. Jaialdiaren antolatzaileek hiru saio aurrera eraman dituzte: lehena ikastetxeetako haurrekin, bigarrena herritarrekin, eta azkena, eragileekin

Maitane Aldanondo-Iñigo G. Sarobe

Lehen hitzordurako minutu gutxi falta zirela botatako zaparradak Okendo plaza Oriarte Institutuko jolastokiagatik aldarazi bazien ere, bestelako eraginik ez zuen izan egitarauan. Aurreikusita-koari eutsi zioten Landaberri eta Sasoeta-Zumaburuko ikasleekin prestatutako saioan. Dantza, kanta, marrazkiak... Bizipozez betetako jaialdia aurrera eraman zuten. Porrotx eta Marimototsek aurkeztu zuten, Euskararen Maratoiko zortzikoteko Koro Dominguez Rodriguez, Vicky Castro Bravo eta Iñaki Etxegia Loiarte, Aspanogiko Laura Hueso eta Naizeneko Marijo Martinezek lagunduta. Musika kontuez, berriz, Bizipoza Elkateko koordinatzaile Leire Elizegi Beloki arduratu zen.

Ikastetxeetara bueltatu ziren haurrak eta atsedean hartu zuten tarte batez Bizipozako kideek.

Euria uxatuta, bigarren hitzordua, Lasarte-Oria Zipriztindu, Askatasuna parkean gauzatu zuten. Elizegik aurkeztu zuen ekimena albo batean, zortzikoteko kideak zituela, aurrekoei Rebeka Garzes Aldazabal eta Joxe Mari Agirretxe Kerexeta gehituta, eta bestean, Lasarte-Oriako Bizipoza taldea osatzen duten zenbat elkartetako lagun. Haiek aurkeztu aurretik, Earra bertso eskolako Arkaitzek eta Ametsek hiru bertso kantatu zituzten, bana bakarka, eta azkena, bi ahotsetan.

Horren ostean Ainhoa Arruti Loiartek (Ostadar Inklusioa), Tomas Arruti Aldalur (Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria), Marijo Martinez Ruiz (Naizen), Laura Hueso Alviz (Aspanogi) eta Sandra Barkaiztegi Navarrok (Izan Iñurri) hitz egin zuten, Lasarte-Oriako Bizipoza taldekoen izenean.

Taldean txanda amaituta, eta dantzarik gabe jairik ez delako, Bizipozaren kantaren doinura aritu dira. Dantza ezagutzen zutenak besteen aurrez aurre jarri dira zortzikoteko kideekin batera, gainerakoei pausoak erakusteko. "Lasai, badakit ez duzuela ikasi, baina kopiatu guk nola egiten dugun. Guk ez dugu oso ondo egingo, baina perfektu da soso" esanda lasaitu ditu Agirretxek. Lehenengoa entseगतat hartuta, bigarren aukera izan dute, eta amaitzeko, Bizipozaren oihal koloretsua aterata eta beste dantza bat egin dute.

Zer da Bizipoza Eskola?

Zipriztintzea da Bizipoza Eskolaren nahia: ingurua, norbera, besteak... Haur eta nerabeak begirada berrian hezi eta haiekin batera, helduek ere gauza bera egitea. Horretarako bali-



Lehen saioa herriko ikastetxeetako haurrekin egin zuten. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako Bizipoza taldeko eragileek hitza hartu zuten. TXINTXARRI



Bizipoza Eskolaren proiektua aurkeztu zuen Nerea Godoy Fuentesek. TXINTXARRI

bideak eskaintzen ditu webguneak. Eskolari buruzko bideo baten ondoren, proiektua aurkeztu zuen bere koordinatzaile Nerea Godoy Fuentesek.

Bizipozaren balioak lortzeko hezkuntza formala, ez formala eta herrigintza ataletan banatutako edukiak ditu. Ikasmaila guztietarako sailkatuta daude materialak hezkuntza formalaren kasuan eta hizkuntza mailaren arabera, ez formalean. Herrigintzaren barruan, berriz, oraingoz bi eredu daude: Lasarte-Oriako eta Bilboko Uribarri auzokoa.

Materialen berri eman ondoren, mahaingurua egin dute, batetik, ikastetxeak, proba pilotuan parte hartu duen Añorgako Amasorren ikastetxea, Landaberri,

Sasoeta, Zumaburu eta Oriarte Institutua; eta bestetik, elkartek: Ttun Kultur Elkartea, Ostadar Inklusioa, Aspanogi, Naizen, Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria eta Izan Inurri. Galdera bana bota zien Elizegik.

Txandak bukatuta, Joxe Mari Agirretxek mikroa hartu eta bertaratutakoei galderak egin zizkien. Sortutako giroaren ildotik, emozio handiko hitzak entzun ziren, bizipenetatik askotan. Hunkidura eragin zuten baita ere Oihan Navarrok abestutako bertsoak eta Maialen Aristegik interpretatutako *Bilatu gabe aurkitutakoak* abestiak. Amaitzeko, talde argazki bat ateratu zuten Antonio Mercero aretora joandakoek.

Herriko atletek, domina uzta lehia ezberdinetan

Lasarte-Oriako atletak Gipuzkoako edo Euskadiko txapelketei egin diete aurre apirilaren 27an eta 28an. Bakarka zein taldean podiumean izan dira proba askotan eta Espainiako txapelketarako gutxieneko marka bat ere egin du Redondok

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak hiru hitzorduri egin zioten aurre apirilaren 27an eta 28an. Lehen postuetan izan ziren herriko kirolariak eta domina uzta ederra batu zuten Ostadar SKTko kideek.

Adin txikiko zein master mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatu zen Donostiako Mini Estadioan. Talde urdin-beltzeko ordezkariek ederki jardun ziren eta 18 urtez azpiko mailan eskuratu zituzten domina gehien. Oinatz Almagro (6,24 m.) garaile izan zen luzera jauzian eta Hodei Garcia (44,69 m.) xabalina jaurtiketan. Azken proba horretan, Aiala Ramosek (29,92 m.) zilarrezko domina eta Nora Manzanalek brontzea (18,23 m.) jantzi zuten. Podiumeko bigarren mailan izan zen June Garcia jauzi hirukoitzeko proban (10,95 m.) eta 100 metro lasterketan, Iraia Alkorta hirugarren izan zen.

16 urtez azpiko mailan, aldiz, Kevin Pinzak (9,42 m.) urrezko domina eskura izan zuen, baina



Garcia, Redondo eta alebiren errelebo, podiumeko gorenean. OSTADAR ATLETISMOA

zentimetro batengatik zilarrezkoarekin konformatu behar izan zen pisu jaurtiketa proban. Eta Iugatz Almagrok (4,91 m.) brontzeko domina eskuratu zuen luzera proban.

Eta master mailan, Atletico Renterriako Mari Carmen Olasso herritarrak ere brontzeko domina jantzi zuen 1.500 m. lasterketan.

Hurrengo egunean, alebin mailako Eskolarteko eta klubuen arteko Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten Ostadarreko kideek, Tolosan. Neskak 4x60 m.

erreleboan garaile izan ziren eta zazpigarren sailkatu ziren; mutilak, aldiz, zortzigarren izan ziren.

Urrea eta gutxienekoa

Eider Redondok, aldiz, 16 urtez azpiko proba konbinatuen Euskadiko txapela jantzi zuen asteburuan. Sei probetan parte hartu zuen atleta gazteak eta lehen bi postuetan sailkatu zen guztietan. Horri esker, 3.416 puntu batu zituen eta Lleidan (Katalunia) jokatu den Espainiako txapelketarako gutxieneko marka eskuratu zuen.



Infantil A taldea, Euskadiko txapelketa jokatu baino lehen. OSTADAR BOELIBOLA

Infantil A taldeak, Euskadiko txapelketan kale eta Ligan bale

Talde urdin-beltza Euskadiko txapelketako final laurdenetan erori da. Ligan, aldiz, Gipuzkoako finalerako

Txintxarri

Ostadar Boleibola saileko infantil A taldeak hitzordu bikoitza izan zuen apirilaren 27an eta 28an. Ane Theus eta Nora Caspistegiren jokalariek Gipuzkoako Liga zein Euskadiko txapelketako neurketari egin behar izan zieten aurre.

Ligako jardunaldian Aldapeta Maria txuri urdin taldea izan zuen aurkari talde urdin-beltzak eta 3-0 nagusi izan zen.

Denboraldi ederra egiten ari da infantil A taldea. Ligan ez du neurketarik galdu eta azken jardunaldia faltan, Gipuzkoako txapelketako finalerako txartela eskuratu du.

Hala ere, hilabeteko lehen asteburuan ederki borrokatu beharko

dute gazteek. Ligako bi partida jokatu dituzte; azken jardunaldia eta atzeratutako bat. Biak gainditzea espero dute.

Getxok, kanpo utzi

Bestalde, apirilaren 28an, Euskadiko txapelketa lehiatu zuen taldeak. Final laurdenean Getxo Etorkiren aurka neurtu zituen indarrak talde urdin-beltzak. Ostadarreko kideek defentsan ongi eutsi zieten bizkaitarrei eta bigarren setean ongi estutu zieten. Tamalez 0-2 (25-9 eta 25-18) galdu eta lehiatik kanpo geratu zen Lasarte-Oriako taldea.

Hala ere, prestatzaileak pozarren daude gazteek egindako lanarekin.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Tolosa CF B - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Usabal, Tolosan.
GORENGOEN MAILA
Usurbil FT - Ostadar SKT Igandea. 17:45. Harane, Usurbilen
ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA
Idiazabal KE - Texas Lasartearra CF Larunbata. 16:30. Arizkorreta, Idiazabalen.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Ostadar SKT - Allerru KJKE B Larunbata. 18:40. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO JUBENILA
Ostadar SKT - San Marcial CD Larunbata. 16:45. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN I. MAILA, IGOERA
Antigua Luberi KE - Texas Lasartearra CF Larunbata. 17:25. Berio, Donostian.
Mondragon CF B - Ostadar SKT B Igandea. 17:30. Moiategi, Arrasaten.
JUBENILEN I. MAILA, GIP. KOPA
Ostadar SKT C - Euskaduna A. SD B Larunbata. 18:00. Udal kiroldegia, Umietan.

OHOREZKO KADETEA
Oiartzun KE - Ostadar SKT Larunbata. 13:15. Karla Lekuona, Oiartzunen.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Euskaduna A. SD - Eguzki Arkupe Rehab. Ostirala. 20:15. Udal kiroldegia, Umietan.
III. MAILA, KOPA
Aldapeta Maria ik. - Eguzki ISU Leihoak Ostirala. 22:15. Aldapeta Maria ik., Donostian.
GAZTEEN MAILA
Eguzki B. Ayesa - Zarautz Gran camping Larunbata. 10:30. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOIA
I. MAILA
Ostadar SKT - Goierri Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
Ostadar SKT - A. Mundarro KE B Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Hemen Garbiketak Eskoriatza KE

Igandea. 11:30. Manuel Muñoz kirol., Eskoriatzan.
K. ERRENDIMENDUA, FASE FINALA
Ordizia - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Majori kirol., Ordizian.
BOLEIBOLA
SENIOR MAILA
Hernani KE - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Udal kirol., Hernanin.
JUBENIL MAILA, 11-14 P.
Fortuna B - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Pio Baroja, Donostian.
KADETE MAILA
Lizardi Bat - Ostadar SKT Larunbata. 11:00. Lizardi BHI, Zarautzen.
PILOTA
LAU TERDI TX., 2. MAILA
Intza (Urdanpilleta) - Ilunpe Ostirala. 19:00 (4. partida). Loidibarren pil.
Hernani - Intza KE (Diaz de Gereñu) Larunbata. 16:30 (2. partida). Udal pil., Hernanin.
UDABERRI TX., INFANTILAK, 2. MAILA
Intza KE 2 - Intxurre 1

Ostirala. 19:00 (2. partida). Loidibarren pil.
Intza KE 1 - Pagazpe
Ostirala. 19:00 (2. partida). Loidibarren pil.
UDABERRI TX., INFANTILAK, 3. MAILA
Goierri 2 - Intza KE
Ostirala 19:00 (1. partida). Urreburun.
GIMNASTIKA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEko gimnastek Amateur txapelketako finala lehiatuko dute. Igandea. 10:00. Uzturpe pil., Tolosan.
JUDO
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEko judoek alebin mailako Gipuzkoako txapelketako finalean zein kopan borrokatuko dira. Larunbata. 14:30. Udal kiroldegia, Umietan.
IGERIKETA
NAUTIKUES DE TARBES
Buruntzaldea IKTKo Iñaki Garciaik Les 31 èmes Nautiques de Tarbes proban parte hartuko du Gipuzkoako selekzioarekin. Larunbata eta igandea. Tarbe, Frantzia.

ALEBIN LIGA
Buruntzaldea IKTKo alebin mailako igerilariak Ligako jardunaldia dute. Larunbata. 17:15. Usabal kirol., Tolosan.
KZL LIGA
Buruntzaldea IKTKo benjamin mailako igerilariak KZLko jardunaldiari egingo diote aurre. Larunbata. 15:15. Usabal kirol., Tolosan.
ATLETISMOA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Ostadarreko atletak infantil mailako klubean eta eskolarteko Gipuzkoako txapelketa jokatu dute. Igandea. Altamira, Ordizian.
ERRUGBIA
16 URTEZ AZPIKOA
Universitario Bilbao Rugby B - Gosalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 13:00. Errekalde, Bilbo, Bizkaian.
12 ETA 10 URTEZ AZPIKOA
Beltzak RT Eskolako gaztetxoek Kontxako hondartzako Torneoan parte hartuko dute. Igandea. 10:00. Kontxako hondartza, Donostian.

Buruntzaldea IKTk marken poltsa handitu

Gipuzkoako Kluben arteko Kopa lehiatu dute apirilaren 27an eta 28an Irungo Azken Portu igerilekuan. Buruntzaldea IKTko hamalau kide izan dira lehian; guztira, 42 marka ondu eta Euskal Herriko zein Gipuzkoako txapelketetarako txartel berriak eskuratu dituzte

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariek urteko hitzordu garrantzitsuenetarikoa bat izan zuten, apirilaren 27an eta 28an, Gipuzkoako Kluben arteko Kopa. Irungo Azken Portu igerilekuan ederki lehiatu ziren absolutu, junior zein infantil mailako gazteak; marka personal ondu eta gutxieneko ugari bildu zituzten bi egunetan. Saillkapen orokorrean emakumezkoek 8. postua eskuratu zuten; gizonezkoek, aldiz, 7. postua.

Giro paregabea izan zuten igeriketa taldeko kideek eta prestatzaileen ustez, horrek nork bere proban jarritako esfortzuan lagundu zuen. Proba indibidualak gain, erreleboak ere aipatze-koak direla nabarmendu dute entrenatzaileek: "Taldea egiten den lehian izanik, igerilariek dioten bezala, gogo, zirrara eta motibazio handia pizten duten probak dira".

Emaitzei dagokionez, igeriketa taldeko hamalau igerilariren



Gipuzkoako Kluben arteko Kopan parte hartu zuten igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

artean, guztira 42 marka personal eskuratu zituzten eta horietako batzuk txapelketa ezberdinetako txartelak eman zizkieten gazteei.

Euskal Herriko txapelketarako gutxieneko berriak lortu zituzten, absolutu mailan, Iker Gorostegui (200 m. lau estilo)

eta Miren Sarobek (100 m. lau estilo eta 50 m. libre). Garazi Etxeberria juniorrak (200 m. tximeleta) eta Mario Amantegi (1500 m. libre eta 400 m. lau estilo) zein Oihan Matute (100 m. bular) infantilek haien adinetako erkidegoko lehian izango dira.



Nahia Zudaire (eskuinetik lehen), errelebo kideekin domina eskuan. INCLUSWIM

Brontzea, txapelketari agur esanez

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek igeriketa egokitutako Europako txapelketa modu paregabean amaitu zuen, apirilaren 28an. Zubietako igerilariak Iñigo Llopis, Ariel Enrique Schrenck eta Sarai Gascon Espainiako selekzio kideekin estilo libreko 34 puntuko 4x100 errelebo mistoa m. lehiatu zuen eta brontzezko domina jantzi zuten (04.11,87); Italia eta Frantzia izan ziren bi lehenak, hurrenez hurren. Nahia laugarren laugarren postan egin zuen igeri eta bere marka 01.09,84 izan zen. Domina uzta polita ekarri du Zudairek etxera; zilarrezko domina bat eta brontzezko bi.

Infantilen kasuan, gainera, Gipuzkoako Udako lehiaketarako markak egin zituzten: Kimetz de la Cruz (200 m. eta 1.500 m. libre), Ane Meyer (100 m. libre), Mario Amantegui (100 m. lau estilo), Nora Miguelez (200 m. bular) eta Oihan Matute (100 m. tximeleta).

Buruntzaldea IKTko maila horietako igerilariek berriro ere Irunen izango dute hurrengo lehiaketa, San Martzial Saria. Hitzordua hilaren 18an izango da. Baina aurretik, hilaren 4an eta 5ean, Iñaki Garcia Gipuzkoako selekzioarekin lehiatuko da Tarben (Frantzia).

Intza KEko pilotariak sendo lehiatu dira etxean

Michelin kirol guneko pilotalekuan jokaturako hiru neurketak gainditu dituzte Intzako kide gazteek

Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko kideek txapelketa ezberdinetako jardunaldia jokatu zuten. Michelin kirol guneko pilotalekuan infantil mailako neurketek gozatu ahal izan zuten zaletuek apirilaren 27an eta guztiek garaipena erdietsi zuten.

Udaberriko txapelketako 3. mailako bikoak (Unai Lizarraga eta Unax Urdangarin) eman zion hasiera arratsaldeko saioari. Goierri 3 izan zuten aurrez aurre. Intzako kideek ederki jokatuz, 18-8 irabazi zuten. Bere

multzoko lehen jarri dira Aloña Mendirekin berdinduta.

Emakumezkoen Gipuzkoako txapelketako lehia izan zen jarraian. Itsaso Iparragirre kideak Alde Zaharrako Sorondo izan zuen aurkari. Ederki borrokata, etxeko pilotaria 2-0 (8-5 eta 8-7) gailendu zen. Txapelketa bikaina ari da egiten lasarteoriatarra. Ez du partidarik galdu oraindik eta bere multzoko buru da.

Jardunaldiari amaiera biribila emateko, infantil 2. mailako Udaberriko txapelketako parti-



Intzako Iparragirre, pilotari jotzeko prestatzen. TXINTXARRI

da izan zen. Oier Jauregi eta Markel Lopezek osatutako Intza 1 biko nagusi izan zen Hernani 2ren aurka; 18-5 irabazi zuten. Kanpoan jokatu zuten Intzako ordezkariak txanponaren beste alde bizi izan zuten.

Lau terdiko txapelketan, Haritza Diaz de Gereñuk Ospeleko

Albenizen aurka neurtu zituen indarrak Orion eta 22-7 galdu zuen.

Infantil 2. mailako Intzak 2k ez zuen zorte hobea izan Astigarragan. Arkaitz Lasa eta Ekhi Maiz bikotea saiatu arren, Munderro 2ko kideek 18-4 irabazi zuten.

Pala txapelketa: izen ematea

Zabaletako Jaietan Zatako Emakumeen* 2. pala txapelketa eta 1. Frontenis txapelketa mistoa jokatu dira. Palako modalitatean tenis pilotarekin zein pilota maziorekin izango dira lehiak. Txapelketetako lehen jardunaldia hilaren 26an jokatu da eta finalak, aldiz, ekainaren 1ean 17:30ean. Izen emate epea hilaren 24an amaituko da. Inskripzioa egin eta informazio gehiago jasotzeko deitu 630 96 60 76 telefono zenbakira.

Erregional Gorengoak garaipena erdietsi du

Ostadar SKT-ko Erregional Gorenak Hondarribiaren aurka kendu du, aurreko jardunaldiko arantza. Etxeko taldea nagusi izan da eta 3-0 gailendu da. Denboraldi ederra egiten ari da Jon Iruretaren taldea eta bere multzoko bigarren da

Txintxarri

"Denboraldi bikaina egiten ari gara. Zentzu askotan gozatzen ari gara", adierazi du Ostadar SKTko Erregional Gorengo taldeko Jon Irureta prestatzaileak. Aurreko asteko porrota -Astigarragako Mundaroren aurka 3-1 galdu zuen talde urdin-beltzak- kolpea izan zela aitortu du entrenatzaileak, baina denboraldian zehar bestetan erakutsi duen bezala egoerari itzulua eman zion taldeak apirilaren 27ko jardunaldian; Hondarribia 3-0 garaitu zuen Lasarte-Oriako taldeak.

Zelaira garaipenaren bila atera zen Erregional Gorengo eta hasieratik amaierara arte hori erakutsi zuten jokalariek. "Txalotzekoa izan zen jokalarien lana; ikusgarria zentzu guztietan", aitortu du talde urdin-beltzeko arduradunak.

Alde jarri zitzaizen neurketa lehen minutuan aurkariak bere atean gola sartu ostean, baina etxeko taldeak ere ederki egin



Ostadarreko, jokalaria baloia kontrolatzen. TXINTXARRI

zuen lan. Iruretaren hitzetan, "lehen zatia biribila izan zen". Ostadarrek baloiaren jabetza zuenean, jokalariek ongi irakurri zituzten espazioak. Era horretara, joko zuzena egin eta baloia mugitzeko arazorik ez zuen izan taldeak. Baloiak ez zuenean ere, fin ibili zen Ostadar. "Joko intentsoa eta ordenatua egin zuten. Presioa nahiko altua proposatu nuen eta baloi asko

berreskuratu eta gol aukera garbiak sortu genituen", azaldu du prestatzaileak. Ondorioz, atsedenaldira 2-0 joan ziren.

Bigarren zatian, gainera lasaitasunaren gola egin zuen taldeak. Oier Santestebanen erdiraketa eta Xabierren burukoari esker 3-0 jarri zen etxeko taldea. Hortik aurrera neurketa kontrolpean izan zuten lasarteoriatarrek.

Mikel Martijak kontratua luzatu du

Mikel Martijak eta Real Racing Club futbol taldeak lan harremana 2026. urtera arte luzatzea adostu zuten martxoan. Era horretara, Santanderko Racing-ek bere konfiantza berretsi du herritarrarengan. Martija 2022an hasi zen Santanderko futbol taldeko kirol-zuzendari lanetan eta aurtengo denboraldi amaieran bukatzen zitzaion kontratua. Aurretik 2013. eta 2021. urte artean Eibarren egon zen lanean. Lehenik harrobian eta gerora, idazkari tekniko postuan. Ostadar SKTn eman zituen bere lehen pausoak futboleko jokalaria eta entrenatzaile modura.



Martija (erdian), kontratua sinatzen. REAL RACING CLUB

Erregional Gorengo entrenatzaileak eskerrak eman nahi dizkie Michelin kirol gunera gerturatu ziren zale guztiei: "Es-kertuak gaude animo eta babesarengatik. Kristoren giroa sortu zuten. Guretzako beharrezkoa da babes hori".

Garaipen garrantzitsua izan zen larunbatekoa eta orain azken txanpan sartuko da Ostadar SKTko Erregional Gorena. Hiru partidaren faltan, multzoko bigarren sailkatua da herriko taldea eta hurrengo jardunaldian Usurbilen aurka jokatuko du.

"Prest gaude, gogotsu eta borrokatzen jarraitu nahi dugu amaiera arte multzoko lehenak izateko. Taldea oso ondo dago eta gozatzen jarraitzea da gure xedea", aipatu du Iruretak.

Ekaineko saioak

Bestalde, Ostadar SKTko futbol sailak ekainaren lehen astean talde urdin-beltzeko kide izan nahi dutenentzat entrenamendu saioak antolatu ditu, Michelin kirol guneko zelaian.

Mailaren arabera, ordubeteko saioak egingo dira. Kadete multilak izan ezik, ekainaren 5ean 17:30etik 19:30era egingo dute entrenamendua.

2013. urtean jaiotako gaztetxoek ekainaren 3an eta 4an izango dute entrenamendua 17:30ean. Egun horietan 18:30ean, aldiz, infantil mutilen txanda izango da.

Hil horretako 6an eta 7an, lehenik (17:30) infantil mailako neskak eta ostean (18:30) kadete mailakoak bilduko dira zelaian.



EUSKAL MENDIZALE ELKARTEA

Mendizaleei omenaldia

Euskal Mendizale Federazioak 40 urte baino gehiago federatuta daramatzaten gipuzkoarrak omentzeko ekitaldia egin zuen, apirilaren 24an, Tolosako Leidor antzokian. Erakundeak bere mendeurrena ospatzeko ekimen ugari antolatu ditu eta horien artean, urte luzez kide izan diren mendizaleei aitortza egin die. Urrezko oroigarria jaso zuten omenduen artean, Josu Agirretxe,

Txema Contreras, Juanito Egaña, Txomin Otaegi, Alex Tetuan eta Antxon Garin herritarrak izan ziren. Lehen bostak Ostadar Kirol Taldeko Mendi saileko kide dira (eskuineko irudia) eta seigarrena, Hernaniko Mendiriz Mendi Elkartekoa (ezkerreko irudia). Alex Tetuanek ezin izan zuen ekitaldian egon eta lagun batek jaso zuen berea.

Giroko Porrako txartelak betetzeko azken egunak dira

Ostadar SKTk antolatzen duen lehia hilaren 5ean hasiko da. Lehen bi sarituek 400 eta 200 euro jasoko dituzte

Txintxarri


Venaria Reale-Torino etapak emango dio hasiera hilaren 4an Italiako Giroari eta horrekin batera Ostadar SKTk antolatzen duen txirringularitza porra ere martxan jarriko da.

Txartelak betetzeko azken egunak dira; internet bidez igandean, hilaren 5ean, 13:00etan amaituko da epea eta tabernetan, berriz larunbatean, 21:00etan. Tiketen prezioa 8 eurotako izango da. Antolatzaileek ohartarazten dute, internet bidez ordainketa egin ezean, billetea ez dela erregistratuta geratuko.

Sariei dagokienez, porrako lehenak 400 euro eta bigarrenak 200 euro jasoko dituzte; etapako irabazleek, aldiz, 65 euro. Horretaz gain, sei urdaiazpiko banatuko dituzte; bost zozketaren bitartez banatuko dira eta bat sailkapeneko azken boletoarentzat izango da.

Aurten 4ak baietz porrarako baliagarri izango da hori ere. Beraz, lau itzultietako sari berezia (1.600 euro) eskuratu nahi dituen herritarrak lau porratan parte hartu eta lauetan txartelak izen bera izan behar du.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Jone eta Txaro
Zorionak kuadrillaren partetik!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZTA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 3	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 4	URBISTONDO
IGANDEA, 5	URBISTONDO
ASTELEHENA, 6	GANDARIAS-URIBE
ASTEARTEA, 7	DE ORUE
ASTEAZKENA, 8	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 9	LASA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRAK

San Juan sokadantza, entseguen egun aldaketa

San Juan bezperako (ekainak 23, igandea) Sokadantza prestatzeko entsegu irekiak egingo ditu Erketz EDTk. Saioak hila-bete honetan hasiko dira eta hasiera batean ostegunero elkartzeoak baziren ere, hitzorduak asteazkenetara aldatu dituzte. Landaberri ikastolako Garaikoetxea eraikinean, 20:00etan bilduko dira ekitaldiko dantzak prestatzera. Parte hartu nahi duen edonor bertara daiteke entseatzera.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN



SUDOKUA

		2	3	9				
		3	5	7			4	2
	9		6	2			5	3
3	7					8	6	
4			7		9		3	1
		1			3		2	
	3			4				6
2		7	9			3		
8				3			9	5

Sudoku10.net

ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behea), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA



ALOKATU

Apartamentu ederra alokatzen dugu Torredembarran (Tarragona), asteka, uztailean eta abuztuan. Etxe indianoa eta oso argitsua. Beheko solairuak lorategia du, eta hondartzatik 500 metrora dago. Etxebizitzak amerikar erako egongela, sukaldaria, bainugela eta senar-emazteentzako logela ditu. Guztira 50m2 lorategiarekin, irteera independentearekin eta aparkaleku propioarekin. Prezioa 975

euro sei gau. Informazio gehiagorako 608319110 608043713 telefonoak. "Ongi Etorri".

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Hipodromo etorbidean garaje itxia alokatzen da, berria. Prezioa negoziagarri. Harremanetarako zenbakia: 616 81 68 14.

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

46 urteko emakumea garbiketari lanak egiteko ekaintzen da. Esperientzia du, baita informea

ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da aste-buruetan lan egiteko. Esperientzia eta informea. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetu laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia du. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 3

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldearen eskutik, *La tierra prometida (The Bastard)* filma ikusteko aukera izango dute ikus-entzuleek. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 4

LASARTE-ORIA Jaia

Udaberri Festa antolatu du Iñigo de Loiola bizilagun elkarteak. Egun osoko egitaraua iragarri, eta askotariko adin eta gustuentzako zuzendutako jarduerak aurrera eramango dituzte. Hau da antolatzaileek aurkeztu duten egitaraua:

10:00etatik 11:30era: Diana.

Trikitixa Ankoker auzoan zehar.

11:00etatik aurrera: Pintxo potea, izakinak amaitu arte.

11:00etatik 13:00etara:

Haurrentzako jolasak babesleen sariekin.

11:30etik 13:00etara:

Erraldoiak eta buruhandiak, LOZET elkartearen eskutik.

11:30etik 14:00etara:

Kilkerband txaranga kaleetan zehar.

12:00etan: Bizkotxo lehiaketa.

Ordu horretarako lehiaketan parte hartu nahi duten bizkotxoak aurkeztu beharko dituzte parte hartzaileek Iñigo de Loiola plazan. Sari banaketa 13:00etan egingo dute.

14:30ean: Paella jan herrikoia.

Txartelak Iñaki tabernan eros ditzakete interesdunek, 10 euroren truke.

16:30ean: Bingoa.

18:00etan: Dantzak, salsa, merenge eta abar.

16:30etatik aurrera: Koktel barra, Yon Pavon Coctails Events-en eskutik.

19:00etatik aurrera: DJ Karpinekin, festa amaitu arte. *Iñigo de Loiola, 10:00etatik aurrera.*

LASARTE-ORIA Antzerkia

Ezezagunok antzerki konpainiak *Exactamente diversas* antzerki obra



LASARTE-ORIA Erromeria

Santikurutz Egunaren biharamunean ospatu ohi dute Azkorteko erromeria; antolatzaileek jakinarazi dute trikitixa jotzaileek girotuko dutela erromeria, eta horien emanaldiarekin batera, meza, herrikirolak ere izango dira. Behean kontsulta dezakezue egitarau osoa.

Hilak 5, Azkorte, 10:00etatik aurrera.

amateurra oholtzaratuko du.

Sarrerek 3 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:00etan.

IGANDEA 5

LASARTE-ORIA Erromeria

Santikurutz Egunaren biharamunean ospatu ohi du Ttakun Kultur Elkarteak Azkorteko erromeria; antolatzaileek jakinarazi dute trikitixa jotzaileek girotuko dutela erromeria. Hau da iragarri dute egitaraua:

10:00etan: Tabernaren irekiera.

Indarrak berreskuratzeko jatekoa eta edatekoaz gozatzeko aukera izango dute bertaraten direnek.

11:00etan: Meza, Azkorteko ermitan. Alboka abesbatzak abestuko du.

12:00etatik aurrera: Herri kirolak eta trikitilariak.

Azkorte, 10:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Zinema

Patrick haurrentzako filma proiektatuko dute. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Menudas piezas helduentzako filma proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 8

LASARTE-ORIA Opera

Opera zaleek hitzordu ederra izango dute; Jonas Kaufmanen *Arena de Verona* obraren bertsio digitala ikusiko dute bertaraten diren ikus-entzuleek. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute.

Kultur etxea, 19:00etan.

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Antzerkia

Hodei magoaren *Sentsazioak* antzerki familiarra ikusteko aukera izango dute lasarteoriatarrek. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 12

LASARTE-ORIA Zinema

Johnny Puff mision secreta haurrentzako filma proiektatuko dute. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Puan helduentzako filma proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

ZINEMA



LABURPENA

'Menudas piezas'

Zuzendaria: Nacho G. Velilla. **Ekoizleak:** Telecinco Cinema, Felicitas Media, Lightbox Animation Studios, Aragon TV, Ayuntamiento de Zaragoza. **Gidoia:** David S. Olivas, Marta Sanchez, Nacho G. Velilla. **Herrialdea:** Espainia (2024). **Iraupena:** 98 minutu. **Generoa:** Komedia. Benetazko bizipenetan oinarritua. **Aktoreak:** Alexandra Jimenez, maria Adanez, Francesc Orella, Luis Callejo, Miguel Rellan, Rocio Velayos, Pablo Louazel, Veronica Senra, eta abar.

Candelaren gorabeherak

Candelak akats bat egin du: igogailu soziala norabide bakarrean dabilela pentsatzea, igoerarako baino balio ez duela irudikatzea. Eta orain, ustekabeko dibortzio traumatiko baten ondoren, ordura arte lan egiten zuen eliteko eskola bateko lanpostua galduko du. Hori dela eta, Candelak utzi zuen

auzora itzuli beharko du. Urteak daramatza bere ahizpa eta aitari harrokeriaz begiratzen, baina, bizi duen momentuak derrigortuta, laguntza eskatuko die. Xake taulako piezak taulan berriz jartzeko garaia iritsiko da, hutsetik hasteko eta beste aukera bat bilatzeko parada.

ASTELEHENA 13

LASARTE-ORIA Jardunaldia

XVIII. Baloreetan Hezi jardunaldiak antolatu ditu Danok Kide elkarteak, eta lehen saioa aurrera eramango du: Miren Gabirondo gonbidatuaren eskutik, *La musicoterapia*. Sarrera doakoa.

Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEARTEA 14

LASARTE-ORIA Jardunaldia

XVIII. Baloreetan Hezi jardunaldiak antolatu ditu Danok Kide elkarteak, eta bigarren saioa aurrera

eramango du: David Egizabal herritar gonbidatuaren eskutik, *La medicina tradicional china*. Sarrera doakoa.

Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEAZKENA 15

LASARTE-ORIA Jardunaldia

XVIII. Baloreetan Hezi jardunaldiak antolatu ditu Danok Kide elkarteak, eta hirugarren saioa aurrera eramango du: Amaia Urkiza gonbidatuaren eskutik, *Mindfulness*. Sarrera doakoa.

Kultur etxea, 19:00etan.

BAZKIDETZA

bazkide egiteko:



TTAKUN



TTAKUNENEA



TTAKUN
KULTUR ELKARTEA



Azkorteko Erronomia

2024ko maiatzak 5

*Indarrak berreshuratzeke haragi egosia,
txorizoa, odolkia eta edaria tabernan!*

10:00: Tabernaren irekiera
11:00: Meza Azkorteko ermitan
(Alboka Abesbatzak abestuko du)
12:00etatik aurrera: Herri-kirolak.
Trikitilariak girotuko dute erronomia

